


Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi»ren izena guztiz loturik agertzen zaigu azken hamarkadotan Euskal Herriko Historiarekin. Kultur arloan egindako lana ez da nolanhikoa izan baina, gaurkoan behintzat, «Txillardegi»ren dimentsio politikoari dagokion puntu batetaz arituko gara. Ezaguna denez, gaur egun Herri Batasunaren izenean senadore lanean diharduen ETaren sortzaileetarikoa honek V. Biltzarrean lehertu ziren gorabeherak gertu gertutik bizi izan zituen. Hori dela eta, Jose Luis Alvarezengana jo dugu.



Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi»ren oroitzapenetan

V. Biltzarra eta Fronte Abertzalea

M. Urkia

Ezer baino lehen, testuingurua zehazteko asmoz, esaiguzu, mesedez, zein zen zure egoera pertsonala hirurogeigarren urteotako hamarkadaren erdialdean.

—«Iparraldera ihes egin behar izan nuen 1961ean. Zuk aipatzen duzun garaian Belgikan nengoen, Bruselasean zehazkiago».

—Euskal Herriari dagokionez, bi izan ziren 1968. urte hartan nagusitu ziren izenak: Txabi Etxebarrieta eta Melitón Manzanás. Txabi Etxebarrieta ezagutu al zenuen?

—«Pertsonalki, ez. Ez nuen Txabi ezagutzen. Beste anaia, Joxe, bai. Parisen ezagutu nuen, 1961eko Urriaren zazpian. Gogoan dut Eusko Jaurlaritza sortu zeneko 25. urte-muga ospatu behar zutela Singer kaleko egoitzan eta belaun berriko bi abertzale, Joxe Etxebarrieta eta

biok, gonbidatu zituztela. Oker ez banago, Ustaritze inguruan bizi zen eta asko ibiltzen zen Federiko Krutwigekin. Nik banekien muga isilpean pasatzen zuela eta... Dena dela, haria galdu nuen eta, Burgosek Auzia izan arte, ez nuen berriz haren informaziorik jaso».

—Nola izan zenuen Melitón Manzanásen hilketaren berri?

—«Lehen esan dudana bezala, Bruselasean nengoen. Beti saiitzen nintzen berri boletin guztiak entzuten, azkenengo berriak ere entzuteko seta baneukan. Egun hartan gauerdiko berri boletina entzun nuen, Madrilgo irratiari oker ez banago, eta horri esker enteratu nintzen. Logelara joan, emaztea altxa erazi, gertatu koaren berri eman eta, etxean geneukan botila txanpaina hartuta, bion artean hustu genuen, zeharo nahastuta. Ekintza guztiz positibotzat jo genuen zeren eta Manzanás, jende askoren torturazailerik famatua, guretzat erreferentzia bat bait zen. Anekdotak bezala esango dut 1950ean, gar-

tzelan nengoela, PSOEko preso irundar bat ezagutu nuela eta harek besoak erakusten zizkigun Manzanásen esposak estutuz egin zizkion zauriak azalduz».

—Gai puntual hauek alboan utziz, hitzegin dezagun ETaren bilakaeraz. Nola bizi izan zenituen V. Biltzarraren aurreko gorabeherak?

—«Pentsa daitekeenez, gure informazioa nahiko partziala zen. Ordurako nik emanak nituen jada urte batzuetan Hego Euskal Herriko kanpo. Hala ere, halako desbideraketa bat somatzen genuen ETaren barruan eta, gure lineari eusteko, pentsatu genuen onena izango zela aldizkari bat argitaratzea, gutxienez gure erantzia azal zedila. Orduan sortu zen 'Branka'. Gogoan dut lehenengo aldi neronen etxean ateratua, Bruselasean».

—'Branka' ETaren agintean sortu zen, ezta?

—«Bueno, nahiz eta Ejekutiboarekin ados ez egon —orduko Ejek-

beranduxeago MC edo LCR
alderdiak gauzatu zituzten
kontrolpean zegoen—,
ETAkoak ginenez gero, pentsatu ge-
'Branka' ren banaketa organiza-
ren ohizko bideetatik egitea
izango zela. Azken batean,
aldizkari bat zen. Lehenengo
arekin halaxe egin genuen baina,
uzpalau urte beranduago jakin
izan genuenez, Ejekutiboak itsa-
bota omen zuen tirada osoa. Ez
ba... pentsatu omen zuten gure
pekeñoburgesa, txaubinista,
zista eta abar zela. Gainera,
'Branka' ren bigarren alean Ejakuti-
bidalitako gure aurkako arti-
kulu kritikoa bat argitaratu zen. Or-
konturatu ginen: 'Bueno, hau
tsita dago, gurekin ez dute ezer
nahi', pentsatu genuen. Gure
ez, desbideraketa espainolista bat
aten ari zen eta, marxismoaren ai-
kiz, nazio problema likidatu nahi
zen».

—Aurrera jo baino lehen, nor-
keramaten 'Branka' ren lema?
—«Batez ere, **Federiko Krutwig**,
len Madariaga eta hirurok. Jokin
alategi ere hasi zen artikulua bi-
tzen, **Jose Manuel Agirre**... eta
lako jendea».

—'Likidazionistak' aipatu
zu... Egiguzu, mesedez —la-
rki bada ere, eta, noski, zure
aspegitik—, garai hartako ETAn
osten ziren jarrera ezberdinen
radiografia.

—Gutxienez, bi jarrera zeuden:
de batetik, 'klasikoa' —nolabait
ateko—, hots, hemen ezker bat
atu behar zen baina ezker aber-
alea, eta, bestetik, ETAn buruza-
zkan zeudenena, hau da, gero MC
LCR sortu zutenena».

—Dena dela, ezker abertza-
aren alde zeuden guztiak ez ze-
zen bat, ezta?

—«Bai. Batzuk garai hartako linea
skuteroarekiko mesfidantza
india geneukan. Beste batzuk,
Krutwig lineakoek esaten zuten
bertzaletasuna defendatzea posiblea
da marxismotik, baina ikuspegi
nositatik».

—Jarrera ezberdin hauek nola
ldu ziren V. Biltzarrean?

—«Hor zeuden gero ETA-VI sortu
enak, ordurarte ETAn zuzenda-
an ibilitakoak. Etiketa bat jartzea-
en, trotskistak zirela esango dut
en, sinplifikatuz, haiek uste zuten
zio arazoa ez zela benetazko
azoa. Benetazko arazoa klase bo-
rroka zen eta nazio arazoak frenatu

bestarik ez omen zuen egiten Histo-
riaren motorra den klase borrokaren
garapena. Izan ere, haien eritziz,
klase fronte bat antolatu behar zen
Espainako sozialista erradikal guz-
tien artean eta Frente de Liberación
Popular delako FLPren bidetik
abiatu ziren. Guk, ordea, fronte
abertzale behar zela montatu esaten
genuen».

—**Baina ETAk, sozial eta nazio
askapenak bilduz, erdibidetik jo
omen zuen...**

—«Nere eritziz, ETAk nolabaiteko
jarrera maoista onartu zuen. **Krut-
wigek** oso ondo esplikatzeko zuen
'Branka' ren bigarren edo hirugarren

Halako desbideraketa sornatu ETAn ba- rruan eta 'Branka' sortu ge- nuen»

alean linea ofizialaren aurka atera-
tako manifestu batean, oker ez ba-
nago, 'Nacionalismo Revolucionario'
titulupean. Gero aberastu zituen
tesi hauek 'La causa del Pueblo
Vasco'n, **Krutwigek** berak esan
duenez, La Hayako enbaxada txina-
tarraren laguntzaz ateratako liburu-
bestalde. Honen arabera, nazio
arazoa dagoenean, klase borrokak
lehenengo fasean nazio askapenaren
itxura hartzen du. Horrek ez du esan
nahi nazio askapen hori, klase borro-
kari dagokionez, neutroa denik.
Nazio arazoa, nolabait esateko, kon-
pontzen denean, bigarren fasean
azaltzen da klase borroka nazio ara-
zotik kanpo, hots, borroka antinpe-
rialista bukatzen denean, borroka
orokor hori klase borroka huts bila-
katzen da. **Maok** esango lukeen be-
zala, japonesak Txinan zeuden bitar-
tean ez zegoen klase borroka egi-
terik. Beraz, iraultza sozialista
burutu baino lehen, japonesak bota
behar zituzten. Baina linea ofiziale-
tik ez zuten hori onartzen alienazio bat
omen zelako. Ez dakit nik gaur egun
EMKkoek zer pentsatuko duten...»

—**Honekin lotuta, zuk askotan
aipatu duzu Jean Paul Sartrek
'Burgoseko Auzia'ri egindako hi-
tzaurrea...**

—«Bai, bai. Izugarritzko morala
eman zigun jakiteak **Sartre** bezalako
intelektual batek planteiamendu hau

onartzen zuela. Baina, noski, ordu-
rako V. Biltzarra eginda zegoen
jada».

—**Dena dela, zuek utzi zenuten
ETA. Zergatik?**

—«Gauza hautsi zenean, ETA za-
harreko joera genuenok ez geunden
konforme bide marxista-leninista ofi-
zialek abiatzarekin eta batzuk, ho-
rien artean ni neu, baja hartu ge-
nuen».

—**Garai hartan ez zenuten zeuen
burua marxistatzat jotzen?**

—«Eta marxista izatea zer da? Hor
dago kokxa. Marxismo-leninismoa
baldin bada nazio arazoa ez dela
egiazko prolema eta halakoak esatea
edo Moskutik etorritako kontsignak



***B**ranka' ren lehenengo ti-
rada osoa itsasora bota
omen zuen Ejekutiboak»*

itsuki onartzea, ni ez nintzen
marxista-leninista, noski. Hori bai,
antinperialismoa, antikapitalismoa,
autogestioa, pluralismoa... **Gorba-
txofen** ildotik? Orduan, bai, inor
baino 'moskuteroagoa' naiz. Labur-
bilduz, 'stalinismoa' ez dut inoiz
onartu. Ejekutibokoek gutaz hitze-
giten zutenean, 'sozialista humanis-
ta' tzat jotzen gintuzten».

—Zer gertatu zen 'Branka'rekin?

—«Ejekutibotik ohar bat bidali ziguten 'Branka' organizazioaren eskuetan —beraz, haien eskuetan— jarri behar genuela esanez eta, oraindik ere ETAkideak ginenez gero, mesedez, disziplinaz, agindua onartzeko. Orduan, Bruselasan bildu ginen, 'horien eskuetan jarriz gero, 'Branka'k ez du sentidurik' pentsatu



Izugarrizko moralak eman zigun jakiteak J.P. Sartre bezalako intelektual batek gure planteiamendua ontzat jotzen zuela»

eta ez obeditzea erabaki genuen. Izan ere, bostgarren edo seigarren numerotik aurrera 'Branka' gure kaxa eta disziplinatik kanpo atera genuen».

—Zuek, nahiz eta erakundetik kanpo egon, ETArekiko lotura ez zenuten erabat galdu...

—«Bueno, 'sestakoek' aparato guztia eraman zuten eta, noski, ETA nahiko gaizki gelditu zen. Orduan laguntzeko eskatu ziguten eta nik neuk eta ETA zaharreko batzuk zenbait lan egin genuen».

—ETatik kanpo egon arren, Nazio Frontearen asmoa ez zenuten bertan behera utzi. Azaldu, labur laburki, mesedez, horri buruz zenuten eritzia.

—«Uste dut lehenago ere honi buruzko zerbaitek esplikatuta dudala. Maok, nahiz eta oso komunista eta

oso ezkertiarra izan, nazio fronte bat proposatu zuen japonesak Txinatik botatzeko... eta gero gerokoak. Guk, era berean, Euskal Herrian fronte abertzale bat behar zela uste genuen, gutxienezko marko bat lortu arte behintzat. Honek ez du esan nahi inondik ere klase kontraesanak bukatzen direnik. Hori bai, 'antinperialista' deituko dudana borroka 'primarioa' da eta, ondorioz, 'alde egin ez dezaten' bitartean jai dugu».

—Fronte Abertzalea eratzeko saioek emaitza onik eman al zuten?

—«Ezaguna denez, bi saio egin ziren: lehenengoa Burgoseko Auziaren inguruan, 1971ean; 1975ean, bigarrena. Baina PNV azkar erretiratu zen. Guk uste genuen Fronte Abertzalea gauzatzea posiblea zela, batez ere **Telesforo Monzon** ezagutu genuenetik. **Monzon**, nahiz eta gauza askotan oso eskuindarra izan, abertzale guztien batasunaren alde zegoen eta, hain zuzen, azkenik, HBen sartu zen. Baina gure kalkulua faltsua suertatu zen. Guk uste genuen **Mozonek** jende asko izango zuela bere atzetik eta esperientziak erakutsi digu ezetz, **Monzon** oso bakkarrig zegoela PNVren barruan».

—Zure ustez, nolako gaurtasun izan dezakeen egunotan Fronte Abertzalearen proiektuak?

—«Hor betiko prolema dugu. Sarglak biltzea Fronte Abertzalean ulertzen baldin bada, ez dut uste inork gaurtasunik duenik. HB, EA, PNV... zaku berean sartzea oso zail iruditzen zait. Gainera, PNV, esate baterako, gaur egun abertzale al da? Baina, egia esan, espainolen fronte hortxe dugu eta hori ukatzina da. Horregatik, nere ustez, praktikoer

litzateke borroka batzu, ahal den neurrian behintzat, elkarrekin aurrera eramatea. Nik bi aipatuko nituzke: euskara eta autodeterminazioa. Lehenengoari dagokionez, 'Bateginik' kanpaina egin berri dugu, ondo ala gaizki, baina euskararen alde gauden guztiok elkarrekin azaldu gara eta espero dut hau lehenengo pausua besterik ez izatea. Beraz, euskarari buruz Fronte Abertzalea eskatuko nuke. Era berean, autodeterminazioari buruz ere Fronte Abertzalea eskatuko nuke, inoiz abertzale guztiek hori dela bidea onartzen dutela kontutan harturik. Hots, Fronte Abertzale abstraktorik ezin bada ere, bi puntu zehatz hau buruz egin ziteken. Baina, noski, honek gutxienezko kontsekuentzia eskatzen du. Ezin da esan euskara edo autodeterminazioaren alde gaudela eta Konstituzioa onartu».

—Azkenengo galdera egingo dizugu. Nazio eta sozial askapenak lotuta doazela erakutsi zuten Etxebarrieta anaiek. Ados al zaude?

—«Noski baietz, ni sozialista naiz eta elkarrekin joan behar dutela uste dut. Baina **Sartre**rekin bat nator: independentziarik gabe ez dago irteer biderik». ■